

# MUGIKORTASUN JASANGARRIA

## EGUNEROKO OHITURA BIHURTZEKO 10 ARRAZOI

### AIRE KUTSADURA MURRIZTU

Motordun ibilgailuak alde batera uzteak, ibilgailu elektrikoak erabiltzeak edo bizikleta, patinetea, oinezko joan etorriak egiteak dauden emisio-mailak murriztuko ditu.

1

### OHITURA OSASUNTSUA

Bizikletan, patinetean, oinez... egindako joan etorriak osasun fisikorako ez ezik, osasun mentalerako ere onuragarriak dira.

2

### AUTO-ILARAK SAIHESTU

Motorrik gabeko ibilgailuak eta garraio publikoa erabiltzea auto-ilarak saihesteko alternatiba ona dira.

3

### APARKATZEKO ARAZORIK EZ

Ibilgailu elektriko eta motorrik gabeko ibilgailuei aparkalekurik "onenak" ezartzen zaizkie.

4

### ERREGAIEN PREZIOA

Gasoil eta gasolinaren prezioa inoiz baino garestiago dago. Honi aurre egiteko aukera ona da garraio publikoa, motorrik gabeko ibilgailuak edota ibilgailua partekatuak erabiltzea

5

### KUTSADURA AKUSTIKOA MURRIZTU

Espainiako Akustika Elkartearen arabera, soinu-kutsadura da bigarren heriotza arrazoi nagusia aire poluzioa eta gero (eragile kutsatzaileei dagokienez).

6

### DENBORAREN APROBETXAMENDUA

Patinetez, oinez edo bizikletan egiten ditugun desplazamenduetan denbora asko aurrezten dugu.

7

### IBILGAILUAREN MANTENUA

Motordun ibilgailuen mantentze lanak, motordun edo motorrik gabeko bi gurpileko ibilgailu batena baino askoz handiagoa da.

8

### SEGURTASUNA

Kotxe gabe egiten ditugun desplazamenduetan istripu edo ezbeharren bat gertatzeko arriskua murrizten dugu.

9

### Hiri berdeak... askoz politagoak!

Hiri berdeak beroketa globalari aurre egiteko irtenbide eraginkorra izateaz gain, askoz politagoak dira!

10